2.1. ZAIN DEZAGUN URA!

Ura oso elementu inportantea da gure planetan eta ezinbestekoa da bizitzarako. Landareek eta animaliek behar dute. Gizakiok edozein gauza egiteko ura behar dugu. Horregatik, Joseren gelan gaia ikertzen ari dira.

01 **Herrian dagoen ibaira hurbildu dira, ibai inguruan egiten diren hainbat jarduera identifikatu dute, eta ibaia kutsatzen duten ala ez aztertu dute. Markatu hurrengo taulan:**

JARDUERA	IBAIA KUTSATUKO DU	IBAIA EZ DU KUTSATUKO
A. Herriko isurketak (etxeetako hondakin-urak).		
B. Ibaian bainatzea.		
C. Granja industriala.		
D. Piraguaz ibiltzea.		
E. Jonen baratze ekologikoa.		

02	**Bideo batean ikusi dute leku askotan ez dutela edateko urik. Zergatik EZ da komenigarria ibaiko ura edatea?**

A. Ura edatekoa ez delako.

B. Urak zapore txarra duelako.

C. Urak marroi kolorea duelako.

D. Ura ontziratuta ez dagoelako.

03 **Badakigu etxeko ura edangarria dela. Joseren gelan urak gure etxeko iturrira heldu arte egindako bidearen kartela aurkitu dute.**

Alboko gelakoei prozesua azaltzeko pausuen izenak falta dira. Idatzi izen bakoitzari dagokion zenbakia:

PAUSOA	ZENBAKIA
A. Ura tratatu edatekoa izateko.	
B. Ura hartu eta metatu.	
C. Ura garraiatu.	
D. Ura erabili.	

04 **Ura erabili ondoren komunetik edo harritik bota egiten dugu. Aztertu uraren ibilbidea behin erabili ondoren.**

Idatzi izen bakoitzari dagokion zenbakia:

PAUSOA	ZENBAKIA
A. Hondakin-ura araztu (depuratu).	
B. Ura ibaira isuri.	
C. Hondakin-ura bildu.	
D. Hondakinak dituen ura araztegira garraiatu.	

05 **Herrian dagoen hondakin-urak araztegira joan dira. Zer egiten dute ur zikinarekin?**

A. Ur zikina edateko ura bihurtzen dute.
B. Ur zikina ibairen urarekin nahasten dute.
C. Ur zikina berotzen dute ibaira bota baino lehen.
D. Ur zikina garbitzen dute ibaira bota baino lehen.

06 **Ura erabili ondoren, noizbait itzuli daiteke gure txorrotara?**

A. Bai, guztiz garbi dago eta.
B. Ez, ez da edateko ura eta.
C. Ez, Ibaitik itsasora doa eta.
D. Bai, uraren zikloan dago eta.

07 **Ura sentsuz erabili behar dugula, eta alferrik ez dugula gastatu behar ikasi dugu.**

Hurrengo ekintzetatik zeintzuk dira egokiak ura aurrezteko eta zeintzuk ez?

EKINTZAK	EGOKIAK DIRA	EZ DIRA EGOKIAK
A. Bainera bete egunero bainu bat hartzeko.		
B. Garbigailua ipini beteta dagoenean.		
C. Euriaren ura bildu landareak ureztatzeko.		
D. Hortzak orrazten ditugun bitartean txorrota irekita izatea.		
E. Komuneko ur-ihes bat berehala konpontzea.		

08 **Ikerketa txiki bat egin dute txorrotako ura eta botilaratutako ura alderatuz.**

Esan ondoko baieztapenak egokiak diren ala ez:

	BAI	EZ
A. Botilako ura askoz merkeagoa da.		
B. Txorrotako urak beti zapore hobeagoa dauka.		
C. Txorrotako ura ekologikoagoa da eduki ontzirik ez duelako.		
D. Biak sanitarioki kontrolatuta daude.		
E. Txorrotako ura botilakoa bezain ona da gure herrialdean.		